

EUZKEL ATALA

GAURKO EBANGELIOA

(Joan, XVI, 23-30)

Beñola Jesusek esan eutsen bere ikasleai: egi egiz dirinuet: nire Aitari ez eskatzen badetsuzue, emongo deusutu. Oraifarte ez deusotuz ezer eskatu nire izenean. Eskatuz eta artuko dozue, zuen poza osoa izan daiteen. Len ipuñiak itzegin deusuet; baina eldu da garaia, ta orain ez deusuet ipuñez itzegino nire Aitarean gauzak argio azalduko deusudaz baiño. Orduan nire izenean eskatuko dozue, ta ez deusuet esaten Neuk Aitari zuen alde eskatuko deusodala, bada Aitak berak maite zaituz ni maite nozelako, ta Aitagandik urten dodala sinistu dozelako. Bai, Aitagandik urten dot, eta lurrera etorri naz; orain oster, lurr izten dot eta Aitagana no. Ikasleak esan eutsuten: fia, orain argio itzegin deuskuzu, ez lenago ez ipuñetan; orain ezagutzen dogu guztia dakizula, ta ifiori ezar itandu bearrik ez dozula. Oragitik sifistun dogu Jainkoagandik urten dozula.

ERRIETATIK AZPEITIA

ARPIDEA
Kirikiño sarirako iriki zan arpedeak gaur arte txinditza au eman du: Errena, 1 laurleko; Euskelzale, 5; Euskelzale, 5; Oyazabal M., 5; Arautuz Mendil, 2; Errenaren adiskidea, 1,50. Azpeitiarrak, euskelzaleak eta egizko gizon euskelduak bazerate ez aztu Kirikiño sarirako zer edo zer eman ber deuzela; bestela ez degu zuen euskotasunan sinistuko.

ERIOZTA
Erlomenditxo'ko ogeita-iruko neskatil gaztita il da G. B. Bere obriratz eta elizkizumetan notintza aundia zan.

JIRA-BIRAK
Eman izan zan gobernadore jauna Urola burribidea ikusten "Izarra" jategian bazkaldu eta Donostia'ratu zan.

Zentro Katoliko'ko bazkioe talde bat Santa Engracia'ra jutekoak dira. Baita ere ikastolatuak mutilak beren urteroko ibillaldia egiteko asmetan dira.

DEU' INAKI EGUNAK
Badatozte erriko jaiak, eta gure agintariak badute nu zerbait burua nekatu, ez badute nai aurreko urtietan bezela esatia eman egiten dirala erriko jaialdi kokorrenak. Elizkizunak beti bezela, izan ohi dira lenengo eta bigarren egunetuek ederrinerariak. Orrez gañera xexenak eta pelotaketa batzuk, ez dago zer esanik ordainduta bata eta bestia; eta... beste ezertzer ere ez. Ainbeste jolas eder izan arren gure artean, nola diran urresku ezpatadantza, irrintzalari, eta abar da abar, ez degu onelako atsegingarririk izaten.

URBITETXOKO ABELGORRIAK
Arraie polatan' Urbitetxok entute aundia artu du bere abelgorriekin. Lengo egun batian izan da gizon bat beste egiteko bari irisko bat erosten. Saldu nai ez, baiño derrigorrien ezela saldu erasi zioten. Alan gero ordaindu ere. Berrogeta zapxi xexmeiko kiloko eta bizi pixuan! Alajafia! Urbitetxotarrak egun gutxi barruan txinditza oderra artu dezute. Jirari ortan!

ORRILLAKO LORAK
Orrillako edo maiatzeko lorak asi zaizkegu emengo txadonetan. Goizian San Agustinen ze ta erdian eta gabian zortziretan txadon nagusian.

DONOSTIA
Menditar trebea dan bezela, jardunaldi sutsu eta egokiakin jakin gaderazi zizun, igande goizian, "Ateneo Guipuzcoano"-ko aretoan, "Altzeta" idazlari eta mendigoizale gaztiak, aibat eta aibat berri zer agertuz zelan gure aberri, abenda eta sinismenak, euki daben eta daukan, bitartekotasun berezia mendigoizaleatsumakin.

Oso txalotua izan zan bere italdien amaian, bada entzunle danak gogotsu eta aretaz izaro zuten ordu bete inguru irauan zuban jardunaldiak.

Baita ere Elortza abeslari gozo eta bikaña naioka txalo entzun zuan bere abesti baikotzaren bukoaratan.

Zorionak Goyerritar bikote abertzale azkarrari.

ITARPE.
EIBAR
JUN-ETORRIKAK
Parist'etik etorritu aurkitzen da gure artian Sevilla'ra juteako asmoz gure lagun Jatorra dan Sarasqueta' Leon.

—Denbora alditxo bat eman igarota itzulitako berriz Paris'era Markano' Santi.
—Sevilla'lik etorri da berriz juteako asmoz gure lagun Gisasola' Prantzisko. MAIATZAN LENENGO EGUNA
Urti onetan ez da egin lanik egun onetan. Jaitrik kalien ez da egin, bakarrik gabian eresbatzan soñuakin dantza egon zan uriko zelaixan.

EUSKO LANGILLIEN BATZAR
... BAT ...
Martitzen gabian Eusko langilleak euki eben batzar bat "Cooperativa" berri bat jartzeko dauden asmuak azaltzeko. Lendarikariz itzaldi gogorra eñ eban, benetan txalogarria, erakutsirik zer ederra dan langillien alkartasunakaz olako sak-ette bat jartzia eta guztion batasunakin norafio eldu geinkezun.

"Cooperativa" ori jartzia gar gogorrik artu zan asmtua.

Pantzeske (eibartarra) Oxanguren' Sabina (eibartarra) Arrizabalaga' Imanol Azkoiti'ko "Ondarua" baserrikoa. Baita ere oso ongi arkitzen da Donostia'ra Oresa sendagilliak osakuntza eginda Unzilla' Pepita. Asko pozten gera.

EZKONTZAK
Asteazkenian uztertu dira txadon nagusian Alberdi' Imanol, Salaberria' Gillelma'rekin, Ostegunian' Andonegi' Pablo Mendaro'ko "Emezabal" baserrikoa, Gabilondo' Petra emengo "Eguren" baserriko neskatillarekin, Azpiazu' Joseba Azkoiti'ko "Izarre" baserrikoa, Basurto' Is-bel emengo "Tranpa" baserrikoarekin. Larumbatian Mendaro (Garagarta'n) uztertu dira Alberdi' Joseba Azkoiti'ko "Olanxto" baserrikoa, Gabilondo' Klauudia Igartu-Zarre'ko neskatillakin. Artu guztioek nere zorian agura.

AIXERIXA.
ERANDIO GOIKOIA
Poz eta atseginkeri andienagaz Igaratz (Pasko) egunean ikusi genduz, lenengoz, barrizian egin dan ezkerre geure txadon aderra, zor jakon eran espada bere, ederto apainduta. Egin danari ondifio gitxi deritxo geure txauburu zintzoa dan Abriketa Joseba Erramona'k uzurtuz (erlegio) eta erriaren onerako daukazan asmo ederran ondorako. Itzaropena ba-dauko erriarena, erriar eta biyotz onagaz eskua zabaltzen debenak ez dabela ukatuko euren laguntasuna, bere gurariyari azkena emon eragiteko. Geure agurrrik sutsubenak txauburu Agurgarri ta lagunari, aldban txuagaz lagundu daben gutziyari, eta bai euren ardurapean oindi (altara) ta eleizea janzteko artu dabezian andrazko ta anderaño bikañari.

Bere estari ta apaltasuna iraintzen badoguz bere, ezin geinke geratu berarizko zorian agurra ta eskarririk andienak emon barik. Geure adiskide dan, Uiarre Ebaista irudigin bikañari, berak ber lan eta nekez egin da geure txadonarako opaldu daben Ama Begonia'kon irudi ederragaitik. Zaindari dogun Ama Begonia'kori bere izko erakusuna (debozioña) beti izan yako erri onetan, baina onik aurrera biyaziyo izango dala esan geike, urrago ta sarrigo bere irudiya ikusten dogu tu.

Aurrez ederto gertautu igaro dan illaren 13'an egin eben erri onetan ikastolatuak neska mutikoak lenengoz Jauna arteea. Ondozko geure genduzan geure euskeraz egin dako gomutxikiyari, Argiario Begonia Illari eta Aresti Gorostola Errite Zite'nak, baina pozago egongo gifian gomutxikiyalek zista. ikasbide be geure elez jakitane, baina tamalez ezdakit danen artean be aren etegoan.

Belutxu, kalte andiyak egin da gero da gure ustez, baina alan da be abegi on eta atsegingarri entzun izan dogu igaroko igandean geure Gotzain Mujika eta Urrestarazu Mateo jaunak bere barrutirako egin daben gotzai idazkiak (pastorala) kistar ikasbideatuz difioana. Idazki orren aginduari erantuzmik arazo astun eta nekozoa dan arren geure jaupariyak asi dira neska mutikoen banatzea egin da euskeraz kistar ikasbidea irakasten igande arratsaldeetan. Sari andiyak abindu arren eta errez izango jolesetan oitira dagozan mutikoak ostiko-jokuetatik ateratan, baina zalatasun pikza bat dogun gurasoak, alegindu bear gara umiak bidaltzen, jaupariyak euren gurariya ondo bete dagien.

Neure astirik ezagaz utzita aspaldin daukadan utsunea betetan, zorienez agertu da erri onetatik "Txori" idazlari barraria. [La mutillak! aspertu barik jarraitu, eta ez ikaratu bateko besteko barriketazak, ze danen erretxiya gatx da egiten. Garaidoko Sondika'lik eta Txorik Erandio'lik bidaldu izparrak ifiori iraiñik ezarri barik astein bein gitxienez, irakurteko zaletasuna geitu dedin. Ba-daukat entuztea, zelan aldi andi barik beste idazlari barri batek be burua agertuko dabela, ta au da geyen poztuen nabena, ze berau da jatorriz geure clerik jakin ez dabena ta ikasten difiariduna gogorik bizenagaz. Zorionak oroi, irakurle tu neure aldez.

Kirikiño sarirako emon dabenak onekex dira erri onetan:
Uriarte' Josu, 3 laurleko; Araondo' Endika, 2; Arteagoitia' Gotzon, 2; Agirre' Todor, 2; Altonaga' Errobustin, 2; Zarraga' Kepa, 2; Etxebarria' Dunixi, 1; Zarraga' Josu, 2; Aretxabala' Peli, 2; Birkarregi' Erramon, 2; Elorrieta' Dorota, 2; Agirre' Pidel, 1; Bilbao' Pantzeza, 1; Zabala' Julen, 1; Azkora' Anbortzi, 1; Uriarte' Bitor, 2; Lartategi' Inaki, 1; X. X., 5; Euskelzale bil, 6; Ayo' Agustín, 2; eta "Amez", 3. Danak, 46 laurleko.

Geyago emon nai dabenik ba-dago badaki nori emon Kirikiño sarirako eta bai Enbeita'n aldeko arpederako.

Urtero lez aurtun be asi dira oste ederragaz orrilla'ko lorak basti politakaz.

ERREZIL
NASKALDIA
Ezkontzak.—Aurtun bere biziko arretu aldia da txoko onetan. Illaren bian, Lezon ezkundu da erri onetako gazte Jose Ramon Aurrer, Bidaniako neskatilla Irain Bgirida Ezeiza'z.

Urrenge astian berriz ezkontzeko da Abita-goetoko neskatilla polit eta trebea bere Irungo lengusuzaz.

Baita ere deitadan dogu erri onetako euskal-idazle Txintxurrearen arrea gazte lirafia. Denari gure zorionak. Onez gainera aurtun uztartzia asmo dutenan izenak azalduko ditugu txadon txadon.

Beren ibillaldia egin Ama Birjina Pillarekoa, Begonia'koa eta Limpia'ko Gurutzite deunari ikustaldiak eñiaz biurtu dira txokora Paulino Uzkudun'en ama eta bere arreba Maria. Ongi etorri.

Zumaragaitik etorri da gure koajutore gazte eta zintz dan Okariz' Andres.

ANA MARI'RI
Zer gertatzen da zuk olafiz azkar idazlari utziteko An Mari biotzekua? Erosi erosi zuk ere Kataliñ'ek bezelakotzen be-tauneko argiak "vista" ona "konserbator" eta izpar ugaririk biltzeko, bestela berriz ere esango dute Ana Mari oso "se-

ñirita veleidosa"-k eta "konstantzi" gutxitxoak zeretala.

Ana Mari, Ana Mari, Jaramon gutxi genduari ez jarraitu idazten astian beñ Argia'ri.

GERNIKA
KIRIKINO'REN SARIRAKO
Gaur arte bildu dodazan laurleko txuak onekex dira:
Lendik, 235 laurleko.
Perea' Anbortzi'k 5; Isusi' Gurutzek, 2. Guztira, 242 laurleko.

Gaur berion artuko dozuz "Orixe" diruok, bidayez, eta geyago batu ezin izan dodalako asketsi.

ENBEITA
Izparringi onetan irakurri arte ezkengeia, zer.
Gernikarrok, batez bere, Enbeitari mese askoren zor gayakoz. Zenbat aldiz, geure Bazokiko jayak edertu eta apaindu oituz, bein izenertu eta abotsoloz!

Emengo adiskidiak, len be, maiz agertu dabe geure Kepa'ri dautsen maitasuna, eta orain be, eskiei garri, bakotxak al-daben eran lagunduko dautse.

Tira ba, zetap barriketan jardun eta. Batek edo batek, artu biri ditu eta boron-datia daukozenok ekarri neuri txindio.

MIREN'EN LORAK
Lagun askotxu bitzen dala, asi dira Andra Mariko eleizan Mayetzeko lorak, illuntzeko zortziretan.

Astian berritan euskeraz egiten dira, eta enparau egumetan, ederraz.
Baña euskeraz irakurten diran egumetan, gutzi-guztiza euskeraz egin bear litzakela deritxagu, otoi, abesti eta abar.

Gauza batzuk ederraz eta beste batzuk euskeraz: irakurri euskeraz eta errezeaz ederraz, itxusi egiten da.

OSTIKOKETA
Datorren igandean be, "Zubigorri"-n ostikoketa dogu.

Emengo Gernika eta Plentziatarrak ekingo dautse, txapeltzarako burrukan.

Aurtengo azkenetarikoa partidua izan biar dau, berau, dirauskuzen.

Aspalditxuan, onek ostikoketa kontuok, erdi aztuta daukaguz bafia.

PELOTA
Ona emen igande ta astelen jokatuiko diran partiduk:
Igandian: Etxabe irugarren eta Atano bigarrenak, Rubio eta Artazo'ri.

Astelenian: Ulazia eta Altunak, Zabala ta Txapastari.

IZURTZA
ERREMATA
Igandean goizeko amaiketuan Udaletxeko aretoan egongo da Txaur-zulo aldeko Sasitza deritxon basoko berrogei areitz tantaen erremata, eta mille ta seiuren puztanteen iabe eginda dago Uribasterra Adolfo, cirua da gero erri txiki baterako.

Aolan kuxxara sartzen bada dirua parra parra, aurtengo ialetan egongo da zer gastau.

BITXABALA
Durango'n asi eta onuzt dotoz bertako kameneru bitzain, eta bitzain-orde, bitxabalari kapa balza botaten, uste dogu gutzitz txukun geldituko dala.

KIRIKINO'-N ARPIDEA
Erri onetako euskaltzaliari esan bir dogu laister itxiko dala arpedea eta oraindi emen ez dutenak ta emateko asmotan dautenak agertu daitezela laister.

Lendik batua, laurleko 67.
Andra eskaltzale batek, 1; Kanpos' Gotzon, 1; M. Berasaluze' Pantzeska, 15; Anakabe' Kolentin, 5. Guztira, 89 laurleko.

LEKOBIDE.
SORALUZE
ZAPATAGILLE BERRIA
Kaval kalian Alejo Maria'eko dendan jartzko asmoan da Bergaroko gazte bat zapateritza; barriak saldu eta zarrak atontzeko. Uztaill aldian amen izango da.

"ALTZETA"-RI
Irakurri diat Donosti'ko Ateneo'n izan duan gurenda aundia eta artu zak nere zorian agurra.

Arragotan, amen kiñarretan ibiltzen gifianian bafio buruaste geiyo darabik.

IZPAR BELTZA
Igandian il zan aldi luzean gexorik egon da Galarraga' Inokentzi. Laguntzen dautsegu atsekabian bere sendi ta senidiei.

GEXO-BAZKUNA
Erriko gexo-bazkunak illa onetan izan dituan goraberak onek dira: Bilduak, 37'50 lko.; emanak, 431'60; galduak, 60'10; bazkidiak, 266; galduak lan ilabetean, 435'70. Kutxan gelditzen diranak, 6.112'13 laurleko. Onetzaz zerbait esan gendun lenagoko illazkian, eta "La Voz"-eko izperkariak ori artuz nerekin dogala dio. Eta nik galdetzen det, nor entzago?

Gexo bazkunak 266 bazkide ditu eta ao batez alkaterean aginduren aurka jarri zan.

Orri ondo irixten dionik bat bera ere ez degu arkitu. Urtian amabi ogerleko gorabera ainbeste zer esan ez dagoala bir bada esango du alkate jaunak. Baña gure aldian eskolan ona dalako erakusketak txiki bat egingo dogu Bazkuna jarri zan 1910'ko orillian, orain dala emerituz urte. Zure agindua orain dala bir urte, bear amazazi urte eragin dituzte ezzer oraindian gure. Amazazi urte orrek dituzte 17x12=204 illabete orain bezela bost laurleko ordaindu bearra izan bagendu izango genduzan kutxan 204x5=1.020 laurleko gutxiago. Orain izango genduzan 6.112'13=1.020'00=5.092'13 laurleko. Eta bazkun onek du erabakita 5.000 laurlekoik bera feisten daniian kutxa bi laurleko'k tokian bat eta erdi ordaintzia, eta badaki alkate jaunak gauden denboran au negargarria dala. Oinkada onetan laister gera iritxiak ortara, asmo berriren bat ezdala. Eta asmo orretan begien aurrean dago langillie izango dala miñ artua eta onetarako giro txarra da, len ere langillien sukaldietan Jesus'ek ogiak eta arrainakin egin zuan mirariak eñiaz bizi gara urtean azkenean kito eteiko. Eta ondo esateko txindiarazua bakarririk ezdago.

KATAMIXARRA.
ENBEITA' KEPA
Gizon zintzo apal eta abertzale sutsu onen izenian arpe bat suskritzio bat iriki da aurreko egumetan Eusko Batzokian.

Irriki da bere adiskide guziak eusko gogo esnatzale beial oni laguntzeko, laguntzue onen bidez bere osasun makala zain-tek elarten deuson gastuak zerbait ez bada be arintzeko.

1 Soraltzetarrak! eskaera ori ez dago- gion ukatu, geure aberriak, geure izateak egiten daben dela da, Enbeita'ren jana edoze- genetik daukida izan dala ta orain be arrian arkitzen dala ez laguntzea erakutsi.

EGURALDIYA
Yorraila'k botetxo itzelaz einduzku bere agurra datorren urterarte. Eta orrilla be, sekuloko negar mosuaz agertu y-ku, orain arte beintzat, euri, aize-biyar eta otza bafio besterik ekarri eztabela; orain luzatuta badau larri bir dabe luñioñ, arto ta enparau eretiak egiteko, bafia bestera oso onuragarriyak dira euri onek, bedar eta enparau abere yateko guslyntzat.

Egualdi onek ikusita, difiozuk "astromiyan" aurreratzko gabillen batek, datorren astian oso eguraldi ederrak dotozala, ba, bera asten daniian "aparejuekuz" nekez uts eta beti igarri eiten dabela. Oñi ikusi egin biar.

MANARIKO. ONATI
ERIOZTA
Aurrerako artlan ill zan Bergara Jauregi' Miren Andere emakume oso ezaguna emen eta albotko errietan ere bai, larogei urte zintu bafia azkenegun egumetarate oso bizkor ibili oi, aberatsa zan eta esku zabalekuak beartsuakin eta beste era batzuetan ere, gure eliz-nagusian azkenegun bera apaintzen egin ziran ainbat lan, ordaindu biar aundiakin, txanpodanek edo geyenak bere sakeletik urten zuten gañera gauza edo ederrak bafio aundiakuak ere eman dituz eliz-nagusia.

Erri guztian tamal aundia utzidu bere eriotziki. (Goyan bago).

"TXANTXUKU AR BAT"-ERI
Oñatiar zintzorentat gordetzen da izen- orrekin Gaitezi'k "Argia"-n argitaraldu daben idazkian, eskerrik-asko zeure zoriauna gaitik eta egon ziur Jaun- are laguntzarenarekin nere idazkorta ez dala geldirik egongo erri, euskaldun onen elizkizunak ederraz egiten jarraitzen dante alperrik bat edo bestek kopeta illuna jarri.

"KIRIKINO"-N ARPIDEA
Erri onetako euskaltzaliari esan bir dogu laister itxiko dala arpedea eta oraindi emen ez dutenak ta emateko asmotan dautenak agertu daitezela laister.

Lendik batua, laurleko 67.
Andra eskaltzale batek, 1; Kanpos' Gotzon, 1; M. Berasaluze' Pantzeska, 15; Anakabe' Kolentin, 5. Guztira, 89 laurleko.

litzateke eskergeak, epelak gerala. Aldi luzean ez da irikita egongo arpedea bafio bai emon gura diranak euren emaitzaz laguntzeko beste.

BAT ETA BESTE
"KIRIKINO"-SARIRAKO
Laurleko
Gernika' batua ta EUZKA-
D'I'ra bialdua 242
Lendanik EUZKADI'n 1.332'25
Guztira 1.574'25

Oraifarte ez gabenak emon dabe, giza-gaxuak. Aberatsak berotzen asiko ez ete dira? Gaur etorri yuz orreitako bat bost- uen laurleko aginduz. Beste batek emon aginduz dituz; Tira bada, ez gaitazan lotsa- gar-i geldituz!

AKITANIA ZARREKO EUSKAL-IZENAK
(yarraipena.)
Galia, Spania ta sarkalde-Aufiar izenen berezitasunari: "Berontasunik ia ez dago ta geyenak urriak, arau indartu egiten dutela. Au, *Ilumnus* sasi-jainkoaren Narbonan agertzearentzat (ligurar lurraldean, bada) bereziki da. Lurralde bertan *Amnicus* ta *Axiomus* arkitzen dira. *Arausio* (Orange) *Harauso* (*Harosus*) jainkotza bertatik izendatua da, ta onek Aufiar *Aur-ibarra*ri izena eman dio. Narbonense lurraldean, azkenik, *Ilius* ere arkitzen da. Guztiz jakingarri da, ligurar sarkaldeko Alpe- mendietan *Domnus* izena agertzen (ligurar) abetatik ere *Domnus* en erria ta *Kottios*-ema daude) (Strabon, 204 orrialdean; geykeratik Orize jaunak itzulita); onetan, agiriari, *Kittis* erriaren bakaldunaren izena da. *Domus* izena en-emen ere ateratzen da, ligurar izenen oituenetako bat zalako, ikusten denez (Holder ikusi). Akitani'ko erpuru dan Bordelen bakarririk agertzen dira ligurar otsa euten izen batzuek, ta *Hübner*'ek orrengatik bere sailletan artu ditu. *Bononus*, gañera, England'an arkitzen da (Holder ikusi). Gañerako, ez Gañetan ta ez Spanian osorik ez dira ontarako ain eñgarrak diran *ax, or, -es, -us* ekin eñgarrak (*Andoxus, Bonbelex, Berhax, Cambuxa*), *-ce* ekindekoak (*Bocco, Androcco, Attacco*), *-m* dutekan (*Axiomnis, Danno*), *-r* koak (*Hotarius, Senarius*), *-i* koak (*Idiate, Attacco*). *Monumenta Linguae Ibericae* (254 ta urrengo orrialdean) idaztarian agertzen diran 800 iber-izen artean, Aufiar-otsa dutenak geyenez amar dira, *Alucius, Boudena, Sissoma, Sunno, Baso* ta abar. Holder'en *Iskuntz-Bil-* 'te'ren Gal-izenen artean abek ia osoro ez ezagunak dira. Bereziki adierazgarria da *h* ta *x* en ugaritasuna, *Bonoxus, Berhaxis, Andox-pomus* ta abar (245 giza- izenen artean, 50 edo bost urden *x* ekin dira!); *Hahamus, Hontharris, Dumohorsis* eta abar (245 izen artean 43, edo bosturdena). *X*rentzat osoan iber-izkuntzak ez du izki-idatzerarik.

"Gali-izenen artean *-rix* ekin egindako lau (izen) bakarririk arkitzen dira: *Bel-heioris, Dumohoris, Dammoris, Toutanno-* *rix, abek, ordea, baita kideizkian (cons-* *onantes) birritasunetan ligurar eraketa erakusten dute. *Belex, Bonbelex, Erdabe-* *lex* eku iberica-erazko *Beles, Umarbeles, Antubeles, Neinibeles* gogoratzen dituzte. *gurella* diran galdetzen da, bafia".*

Bonbelex iberica erazkoa edo *Antubeles* li-
Aufiar-mendietan Galia eta Spania'ren aurrin izenekin gertatzen dana "berdin mendietan ligurar izenak irauñ egin dute- la agertze, *Velex* erromar maister-erri-
txikian artu oiteke. *Velex*'ko *Tabula* ize-
na dun idaztarian landako sorok erromar izenak eta mendiko baso ta larre-izenak ligurararak dira". (*Velex* Itali'ko erri bat zan).

"Ligurar-izenak *Corpus inscriptionum latinarum* -XIII- i eta Rev. Celtique 1903, 71 eta urrengo orrialdeetan, ta euskal-itzak Azkue'ren 2 idazti-zati ditun Diccionario vasco-español-francés'etan arkitzen dira".

Sarkaldeko Aufiar-mendietako eta euskal-izenen "alkaridetasun geyenak Aufiar bazterretako biltzale *Luchoire* A.K. (Etu- de sur les idiomes pyrénéennes, 1879) eta *Schuchard*'ek (Iberische Deklination, 10 eta urrengo orrialdeetan) artu dituzte".

St. Pé d'Ardeit, *Ariate* edo *Ariete* sasi-
jainko, ta abek erriye zuzagitz-izenetik etor-
tzeari: "Ard-etum (izen galdtu bat izango litzakena) bidez, *ilicetum* ta *roboretum* erara?".

Jaupa-mal zarren irudiak, "Espérandieu, Bas-reliefs de la Gaule, II, N. 859-865", ean.

Baeserte ta bas-arte'n alkartasunera-
"Aldaketa ber-bera ta a artean *Ariate* ta *Ariete*"n ikusten da".

Carrenius sasi-jainko "Seymour de Riccieri irakurtze berrik fik (Hirschfeld) ek *Carnio* edo *Carpio* dakart".

Sutunio "Sut-opi"ekin alkartu (auste-
rrean erretako ogia) sut eta opi (Arto-
okorea)-tik. *Schuchard*'en.

"Abera sasi-jainko'en gaiz S. Reinach'ek egindako *Survivances du Totémisme* ikusi, Rev. Celtique 1900, 269 ta urrengo orrialde-
tan".

"*Le-heren*'ekin *Le-(i)lumnus* alkartze-
koa da".

X (*as, ac, at, ar, s*) izen-azkenete gaiz: *Vriassus, Andossus* ondoan; *Vriassus, Vriase* ondoan; *Bihoxus, Bihocin(nus)* ondoan; *Senico, Senissos* ondoan; *Belex* eta *Belexco; Baicoris, Baicorinus* ondoan.

"Euskal izen-azkenete edo atzizkientza-
zaineraspideak, *Luchoire*'n *Etudes* sur les idiomes pyr. (1879), 69 ta urrengo orrialdeetan".

Provenza-aldeko ligurar-izen gaz: "*Le-* *nago lumnus*"ena ikusi. *Boccus Harauso* *Arausio*'gandik banatzen ez da uzten".

Taurindarrak ligurararak ziralta "Ca-
ton'ek, Plin, 3, 123, ean".
Karri lenago, orain galduta, *arri* ordez: "*Glosa*",